


DONEJAKUE BIDEA

LUZEA DA ETA OZTOPOZ BETETA DAGO



Campaña de personas sin hogar 2024
Etzegabeen eguna: 2024ko urriaren 27a

GOAZEN ELKARREKIN

-Taldeekin lan egiteko dinamika - Inor ez etxerik
gabe 2024 kanpaina. Cáritas española

ANTOLATZ
AILEA

LAGUNTZAI
LEA

FINANTZIATZAILEA



«Inor ez etxerik gabe» 2024 kanpaina

Taldeekin kanpaina lantzeko dinamika

Aurten, material pedagogiko “irekiagoa” proposatzen dizuegu, adin desberdinetako taldeei egokitzeko modukoa.

Beraz, material pedagogiko bakarra dago, eta haren helburua da taldeka hausnartzeko guneak sortzea, etxegabeei begiratzeko modua aldatzeko.

Aurreko urteetako dinamikari jarraituz, proposatzen dugu taldeekin egiten ari garen lan bisuala jarraitzea.

Saioa prestatzea

- 1 Jakin beharko da tailerraren xede den taldeak zenbat lagun izango duen, baita sentsibilizazio-saioa egiteko zenbat denbora izango dugun ere. Lagun-kopuru horren arabera: taldea < 10 bada, dinamika osoa landu ahal izango da talde osoarekin. Taldea >10 bada, gogoeta-taldeak egitea gomendatzen dugu.
- 2 Gomendagarria da ordenagailu bat eta proiektagailu bat izatea. Taldeak mugikorra badu, erabil dezake.
- 3 IKUSI - EPAITU - JARDUN metodologia erabiliko dugu, taldeei egokituta, eta ez dute eliza-taldeak izan behar. Hortaz, errealitateaz jabetuko gara, eta bideoen bidez hurbilduko gara bertara —errealitate horretaz hausnartuko dugu, entzuten saiatuko gara, zer esan nahi digun jakiteko—, konpromiso txiki bat hartuko dugu errealitate horrekin.

Saioa garatzea

- 1 Hasieran, azalduko dugu nor garen eta zertarako gauden. Inor ez etxerik gabe 2024 kanpainako bideoa erabil dezakegu eztabaida pizteko eta aurtengo gaia kokatzeko (bideo hori oraindik ez daukagu).
- 2 Taldeak egin behar badira (>10 pertsona), hau da horretarako unea.

1. zatia: IKUSI

Lehen hurbilketa egingo dugu Caritasek urte hauetan lagundu dituen etxegabeen errealitateetara.

Arreta jarri behar dugu, “sentiberak” izan eta gure begirada egokitu behar dugu; izan ere, arreta jartzeaz gain dagoeneko kalean dauden pertsonengan —haien egoera erraz ezagutzeko modukoa da—, erreparatu behar diegu laguntzarik, sostengurik gabe eta erabat abandonatuta dauden horiei, etxegabe bihurtzeko arriskua baitute.

Ikus dezagun Enriqueren testigantza:

[2020 Etxegabeen eguna. Enriqueren testigantza \(youtube.com\)](https://www.youtube.com/watch?v=2020Etxegabeen eguna. Enriqueren testigantza)

Elkarrekin gogoeta egingo dugu honako gai hauei buruz:

1. Zure ustez, nola sentitzen da bideoko protagonista?
2. Zein dira zailtasunik handienak?
3. Zer sentimendu pizten du zugar bideoko protagonistak?
4. Zein dira gehien hunkitzen zaituzten egoerak?
5. Nola sentituko zinateke bat-batean gehien maite duzuna galduko bazenu? Zer gertatuko litzateke zoriontsu sentiarazten zaituen guztia desagertuko balitz?

2. zatia: EPAITU

Giza eskubideak – Giza eskubideen lan-karpeta. Identifikatu proposatutako bideoan urratzen diren eskubideak

Bada garaia etxegabeen egoeren aurrean jarrera hartzeko. Horretarako, bideo hau ikusiko dugu: [“Déjame entrar” \(youtube.com\)](https://www.youtube.com/watch?v=Déjame entrar)

Ikusi bitartean, eskubide bat urratu dela ikusten dugunean, txartel bat altxatuko dugu. Gero, horiei buruzko hausnarketa egingo dugu elkarrekin.

I. eranskinetako txartelak: Inprimatu kartoi mehean, itsatsi kartoietan...

Bideoan agertzen ez diren urratutako eskubideen adibiderik jarri ahal dugu?

3. zatia: JARDUN




Konpromisoak hartu. Dinamika honetan erabiliko ditugu horma-irudiak, kartoi meheak, post-itak...

Etxegabeen eskubide urratuei buruz hausnartu ondoren, konpromisoa hartzeko garaia da. Caritasek prekaritaterik handieneko egoerekin konprometituta dagoen gizarte baten alde egiten du, gizarteak egoera horien ardura har dezan, bere burua eta besteak zaintzen jakin dezan.

Horregatik, gonbit egiten dizuegu banatutako folioetan / post-itetan konpromiso indibidual bat idaztera. Konpromiso indibidual hori partekatu behar da; beraz, idatzi ondoren, ozen irakurriko dugu gainerakoek entzuten duten bitartean.

Asmoa da eztabaida piztea, eta, konpromiso indibidual horretaz gain, konpromiso kolektiboa lortzea multzo / talde / klase / erakunde gisa.

I. ERANSKINA

Osasunerako eskubidea 	Etxebizitza izateko eskubidea 	Enplegua izateko eskubidea 
Diskriminatua ez izateko eskubidea 	Askatasunerako eskubidea 	Segurtasunerako eskubidea 
Parte hartzeko eskubidea 	Segurtasun sozialerako eskubidea 	Bakerako eskubidea 